

Aurrera, batera!
**Vitoria
Gasteiz**
Mira al futuro



2023 UDAL
HAUTESKUNDE PROGRAMA

SARRERA



Anbizioa eta determinazioa.

Esku artean daukazuen programa gure hirirako nahi dugun ibilbide-orriaren isla da. Egungo eta etorkizuneko Gasteizerako proiektu liluragarria, amesten dugun eta eraiki nahi dugun Gasteizerako. Dedikazio osoz gasteitzar guztien zerbitzura.

Proposamen honek zer egin nahi dugun eta nola egingo dugun jasotzen du, uste baitugu nola egitea zer egi-tea bezain garrantzitsua dela. Utopietatik urrunten diren eta egin daitezkeen proposamenak landuko ditugu, bai eta gure norabidea argi eta garbi finkatu ere. Hitzeko, hizketako, akordioetako eta talde-laneko emakumea naiz. Entzutean, parte-hartzean eta lankidetzan oinarritutako lana. Ituna. Horiek izango dira gure oinarriak elkarrekin hobea eraikitzeko.

Ilusio eta indar handiarekin iritsi naiz ardura berri honetara, eta, batez ere, pertsona eta auzo guztien, enpresen, saltokien eta zerbitzu publikoen bizitza hobetzeko konpromiso irmoarekin. Gure proiektu handia zuek zarete, zuen ongizatea, zuen bizi-kalitatea.

Atsedenik gabe lan egingo dugu Gasteiz kohesioa duen hiria, modernoa, irisgarria, lehiakorra, errespetuzkoa, askotarikoa eta anitza izan dadin. Gasteiz berdinalea izan dadin, ahaldundutako emakume eta neskatoekin, non pertsona guztiak eskubide berberak izango dituzten, sexua, adina, jatorria, sinesmena edo sexu-orientazioa edozein izanda ere. Berdintasuna, kontzeptu zabalean eta askotarikoenean ulertuta. Gizarte aurreratuenak berdinaleenak dira, eta, arlo horretan, erakundeak punta-puntakoak izan behar dira.

Pertsona guztientzako giza eskubide guztien defentsa izango da gure ekintza politikoaren muina. Balio etikoetan eta printzipio demokratikoetan oinarritutako bizikidetzaren alde lan egingo dugu. Desberdin pentsatzen dutenen arteko bizikidetzaren alde. Hala ere, edozein motatako indarkeriaren deslegitimazio politiko eta soziala irmo eta argi eta garbi defendatuko dugu. Oroimenetik eraikiko dugu Gasteizen etorkizuna. Iragana ahaztu gabe.

Atsedenik gabe lan egingo dugu guztiontzako aukerak dituen hiri baten alde, eta, bereziki, behar gehien dituztenentzat eta gure laguntza behar dutenentzat. Ez dugu inor atzean utziko, hiri batek aurrera egiten duelako bertan bizi diren pertsona guztiak aurrera egiten badute. Pertsona zaurgarrienak, desgaitasunen bat dutenak, adinekoak, gazteak, emakumeak, haurrek, migratzailak edo errefuxiatuak. Pertsonak gure politiken erdigunean egongo dira. Pertsona guztiak.

Badena eta izan daitekeena harrotasunez sentituko duen Gasteiz hiria nahi dugu. Identitatearekin eta kidesun-sentimenduarekin. Aurrera egin nahi dugu, pertsona bakoitzari bere bizi-proiektua garatzeko aukera

eskainita. Gure gazteei lanerako, aisialdirako eta kulturarako aukerak eman behar dizkiegu, eta gainerakoentzat erakargarriak izatea lortu behar dugu.

Indargune asko ditugu: gizarte-zerbitzu onak eta gizarte-ezkutu indartsua kolektibo ahulenak babesteko. Bizi-ka-litatean erreferente gara. Babes soziala bermatuko dugu, gure eredua pertsonak direlako.

Industria modernoa eta lehiakorra dugu. Ibilbide industrial luzeko hiria gara, lehen mailako enpresa berritzaleekin, maila teknologiko altua dutenekin eta, etengabeko hobekuntzak buruan izanda, garai berrietara egokitzen direnkin. Bikaintasuna bilatzen dute hazten jarraitzeko, aberastasuna sortzeko, kalitezko enplegua eskaintzeko eta gure ongizate-sistema mantendu eta hobetu ahal izateko. Bere aliatuak izango gara eta abangoardian ego-teko eta inbertsio berriak erakartzeko elkarlanean arituko gara. Gure biztanleek prestakuntza-maila ona dute, eta enpresen, ikastetxeen eta Udalaren arteko lankidetza indartuko dugu lehiakortasuna eta ekintzailetzan hobetzeko.

Sekulako hiria dugu, eta askok bekaizkeriaz begiratzen diote. Bere politika berdeek, jasangarritasunaren eta ingurumenaren aldeko apustuak eta klima-aldaketaren aurkako borrokak Europako abangoardian kokatu gaituzte.

Funtzionatzen duen eredu bat dugu: hazkundea eta ongizatea. EAJ-PNV eredua da: garapen soziala eta garapen ekonomikoa. Hori izango da gure apustua: bizitzea, lan egitea, gozatzea eta inbertitzea merezi duen Gasteiz hiria sendotzea. Alderdi soziala sendotuko duen eta bere ekonomiari bultzada berri bat emango dion hiria.

Talde hau prest dago oraina gidatzeko eta etorkizuneko hiria diseinatzeko. Pertsona konprometituez osatutako taldea gara, eskarmen handikoa, ondo prestatua, ahalegintzeko gaitasuna duena, eta beteranoak eta gazteak nahasten dituena. Elkartasunean, zintzotasunean, zorroztasunean eta etengabeko entzutean oinarritutako balioak dituen taldea gara.

Azken hilabete hauetan, haien ideiak, eskaerak eta proiektuak helarazi dizkiguten pertsona eta kolektibo askorekin hitz egiten eta haiei entzuten aritu gara. Auzoetan barrena ibili gara gure proposamenak azaltzen eta auzokideek behar dutena gogoan hartzen.

Programa hau nola hobetu esan diguten pertsona horiekin guztiekin batera egin da. Beraz, programa partekatua da, gure eta zuen ekarpenen batasunetik sortu da, hiriaren ezaugarriak eta hura osatzen dutenen borondatetan kontuan hartuta. Asmatzeko modurik onena, eta hemen aurkezten duguna, entzutea, hitz egitea eta adostea da.

Eta lankidetza entzutea bezain garrantzitsua da. Erakundeen arteko lankidetza eta ekimen publiko eta pribatuaren baturaren alde gaude, norabide berean arraun egiteko. Arabako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkar ulertzea izan da udal honek azken urteotan izan duen nortasun eta arrakastaren ezaugarria. Erakunde guztiak EAJren gidaritzapean daude, eta hala izaten jarraitu behar dute indartsuagoak izateko. Estrategia hori indartuko dugu Euskadiko hiriburuan, horri esker inbertsio, proiektu eta aurrerapen gehiago lortu ditugulako. Gasteiz,

Araba eta Euskadi. Ziur gaude elkarrekin onurak lortuko ditugula pertsonentzat.

Badakigu ziurgabetasun uneak bizi ditugula. Ukrainaren inbasio bidegabearen, argindarraren, energiaren edo erosketa-saskiaren prezioen igoeraren eta hipoteka-mailegu handien ondorioak pairatzen ari gara. Interpelatzen gaituzten erronka globalak ere baditugu: klima-aldaketaren erronka, demografia, adimen artifiziala, krisi humanitarioak, etab. Alderdi honek ekintza, lana, ahalegina eta ekimena eskaintzen dizue. Ausartak izango gara eta begirada zabalduko dugu. Ez gara geldirik geratuko. Aurrera egiten jarraituko dugu, norabide argiarekin, ausardiarekin eta hiri honetako eragile ekonomiko eta sozialekin lankidetzan. Etapa zail batean gaude. Pertsonek beren arazoentzako konponbideak eta leku segura bilatzen dituzte. Babesleku hori EAJ-PNVko emakumeak eta gizonek gara. Segurtasuna eta egonkortasuna gara.

Zuen konfiantza eskatzen dizuet hazten jarraituko duen hiria izateko. Zerbitzu gehiago eta hoberekin, kalitatezko enpleguarekin, erakargarria eta aukeraz betea. Etorkizun oparoa duen hiria. Kudeaketan dugun esperientzia es- kaintzen dizuegu. Nire esperientzia pertsonala, zeregin honetan laguntzen didaten esperientzia eta EAJ-PNVrena.

Aukera eta erronka handiak ditugu aurre egiteko. Badugu gaitasuna eta ilusioa irtenbide partekatuak bilatzeko, Gasteiz guztiok amesten dugun hiri handia izan dadin.



Beatriz Artolazabal Albeniz

EAJ-PNVren Gasteizko alkatez zurako hautagaia



2023 UDAL HAUTESKUNDE PROGRAMA

AURKIBIDEA

1. EKONOMIA BERRITZAILEA (ANBIZIOA)	9
1.1. Gure industria sendotzea	12
1.2. Ekonomia berritzalea	13
1.3. Talentua, empleguoa eta ekintzaileta	14
1.4. Turismoa	15
1.5. Merkataritza	16
2. FUNTZIONATZEN DUEN HIRIA (ZORROZTASUNA)	19
2.1. Auzo eta herrien hiria	22
2.2. Hiri konektatua	26
2.3. Pertsonen hiria	30
2.4. Administrazio zorrotza, modernoa eta hurbila	36
3. HIRI BIZIA ETA ERAKARGARRIA (HARROTASUNA)	39
3.1. Aire zabaleko hiria	42
3.2. Euskara	44
3.3. Kultura	45
3.4. Karbono hiri neutroa	48



Ekonomia berritzaileda A**n**bizioa

- 1.1 Gure industria sendotzea
- 1.2 Ekonomia berritzaileda
- 1.3 Talentua, empleguoa eta ekintzailletza
- 1.4 Turismoa
- 1.5 Merkataritza

“Etorkizunari anbizioarekin begiratzeko, gure industria sendotzeo, inbertsioak eta proiektu berritzaleak erakartzeko eta gure gazteei aukerak emango dizkien hiria izateko unea da”

1_ Ekonomia berritzalea_ Anbizioa

Hiriko helburuak:

- Industria-sektorea sendotzea eta industria-enpresek egiten dituzten modernizazio- eta handitze-prozesuetan laguntzea. Horrela, industriak gure ekonomian duen pisua handituko dugu.
- Etorkizuneko ekonomiaren parte diren eta gure hiriaren etorkizun ekonomikoari lagunduko dioten inbertsio eta proiektu berritzaleak erakartzea.
- Hirian talentuaren atxikipena eta erakarpena bultzatzea.

Proiektu estrategikoak:

1. Industriaren kapital berdea. Gure industria sendotza eta bere handitze- eta modernizazio-prozesuetan laguntzea. Ekosistema industrial berriak garatzea, hala nola energiarena, digitalizazioarena, biozientziena edo kirolarena, eta inbertsioak erakartzeko lurzoru lehiakorraren eta kalitatezkoaren eskaintza bermatzea.
2. Talentuaren eta teknologiaren zentroa. «Gasteiz Araba Talent», talentua hirira atxikitzeo eta erakartzeko proiektua. Enpresek eta gazteek gure hirian aukera-gune bat ikus dezaten eskaintzen den zerbitzua.
3. Gamarra eta Betoño, berrikuntzarako barrutia. Gure industria-parkeak berroneratzea, erabilera berriak emateko, haien kontserbazioa hobetzeko eta hiriarekin integratzeko.

Vitoria-Gasteizko ekonomia eta aberastasuna bermatzeko, laguntza eman behar zaie ekonomia sortzen dutenei, enpresak modernizatzen dituztenei eta kalitatezko empleguak sortzen inbertitzen dutenei. Industriari zuzenean lotutako hiria gara; industria modernoa, lehiakorra eta berritzalea, etorkizunari ausardiaz eta anbizioz begiratzen diona. Akordio instituzional eta politiko handiei esker, inbertsio garrantzitsuak erakarri ahal izan dira, Gasteiz industriaren hiriburu eta automobilgintzaren sektoreko puntako hiri gisa sendotzeko. Bide horretan aurrera egiten jarraitu nahi dugu, gure hiriaren etorkizun ekonomiko eta soziala bermatu ahal izateko.

Iraganeko krisien esperientziak eta egungo ziurgabetasunak sendoago sentiarazten gaitu industriaren defentsan eta trantsizio ekologikoaren, deskarbonizazioaren eta digitalizazioaren inguruan industria- eta ikerketa-ekosistema bat sortuko duten industria-nitxo berriak sortzeko apustuan. Konfianza osoa dugu industria- eta berrikuntza-polo berri bat garatzeko ibilgailu elektrikoentzako baterien inguruan, Gasteizerako enpresa eta inbertsio berrien ezarpena erakar dezakeena.

Baina horretarako prest egon behar dugu. Hiriak hori posible egingo duen azpiegitura izan behar du, eta lurzoru industriala da gure lehiarako abantaila nagusia. Aberastasuna erakartzeko, dagoeneko finkatuta dauden industria-eremuak biziberritu eta indartu behar dira, hala nola Jundiz eta Forondako aireportuko enpresa-parkea handitzea.

Etorkizuneko belaunaldiei egokituko zaie hiriaren eraldaketa ekonomiko eta sozial handien buru izatea. Ondo prestatutako eta talentua duten gazteak izan behar dira, Gasteizen beren ideiak eta proiektuak garatzeko aukera ikusi behar dutenak. 'Gasteiz Araba Talent' agentzia bezalako ekimenek hirian daukagun talentua atxikitzen eta kanpokoa erakartzen lagunduko digute.

Lan-aukerez gain, hiri dinamikoa, dibertigarria eta alaia eskaini behar diegu. Hiri bizia, kale argiztatua eta denda beteak dituena. Merkataritza gure beharrei erantzuteko funtsezko baliabidetza hartzen duen hirian sinesten dugu, eta badakigu udalak hori zaindu eta bultzatu egin behar duela.

1.1_Gure industria sendotzea

1.1.1 Mercedes Benz handitzeko beharrezkoak diren hirigintza-aldaaketak garatzea. 1200 milioi euro inguruko inbertsioa, funtsezkoa Vitoria-Gasteizko etorkizun ekonomikorako. EAJ-PNV enpresaren aliatua izango da hedapen-planetan.

1.1.2 Michelinek Gasteizen planeatzen dituen inbertsio berriei laguntzeko beharrezkoak diren udal-kudeaketak bultzatuko ditugu. Horretarako, enpresari produkzio-prozesu berriak ezartzen lagunduko diogu.

1.1.3 Karbono-funts bat sortzea azpiegitura berdeen projektuetan oinarrituta, tokiko enpresariekin garatu ahal izan dezaten, emisioengatikoa konpentsazioak lortzeko.

1.1.4 Arriaga, Gamarra eta Betoño-Larragana industrialdeen biziberritzea bultzatzea. Helburua da ekonomia berriari lotutako enpresak eta negozioak finkatzeko espazioak eskaintzea.

1.1.5 Gamarra Atarian (Gabilondo ingurua) eta Betoñoko Atarian plan bereziak garatzea, herria hirian behar bezala integratzeko hirigintza-hobekuntzakin.

1.1.6 VIAParen (Gasteiz Industrial Air Park) handitzeko lanak desblokeatzea, AENAren sinatutako hitzarmena berriro negoziatu ondoren, Forondako aireportuko enpresa-parkea errealtitate bihurtzeko.

1.1.7 Arabako Parke Teknologikoaren handiagotzea erraztea, lurzoru urbanizagarri gehiago birkalifikatuz, hirira inbertsioak eta enpresa teknologikoak erakartzeko lurzorua eduki ahal izateko.

1.1.8 Egungo industrialdeak hobetzea, enpresa berrien ezarpena sustatzeko; horretarako, gutxienez 4 milioi bideratuko dira gure industrialdeen hobekuntzetan inbertitzeko.

1.1.9 GILSA, Udalari atxikitako partaidetzako soziitate publikoa, bultzatzea eta sustatzea, SPRILUR enpresarekin eta Araba Garapen Agentziarekin etengabeko lankidetzan, Gasteizen industria-ekimena eta -inbertsioa sustatzeko eta laguntzeko.

1.1.10 Jundizko Plataforma Intermodala trenbideko nodo logistiko gisa sustatzea. Horretarako, proiektu honen alde dauden gainerako erakunde eskudunekin lankidetza areagotuko da.

1.1.11 Industria Mahaia suspertzea, hiriko eragile ekonomikoekin komunikaziorako eta estrategia partekatutako leku gisa, bertako partaideen pisu industriala indartzeko.

1.2_Ekonomia berritzaila

1.2.1 Vitoria/Gasteiz Araba Mobility Lab proiektuaren alde egitea, mugikortasunaren arloko berrikuntza-laboretegi gisa, Arabako Foru Aldundiaren eta sektoreko enpresa nagusien eskuak hirian eta lurrealdean.

1.2.2 Deskarbonizazio-zentro berri bat sortzea, eta enpresetan eta gizarte osoan deskarbonizazio-prozesuak bultzatzen dituzten enpresen ekosistema berri bat sustatzea.

1.2.3 Ekonomia digitala bultzatzea, Europako Smart Cities Klusterrarekin aliantzaren bidez, digitalizazioari eta teknologiari lotutako gure enpresa-ekosistema propioa garatzeko.

1.2.4 Hirian sortzen ari den bateria-ekosistemari laguntzea, hura sendotzeko eta garatzeko. CIC Energiguneari, Basquevolt gigalantegiari eta eremu horretan lan egiten duten hiriko gainerako operadoreei gure babes ematea.

1.2.5 «GasteizKMO» proiektuaren bidez, tokiko produktuaren merkaturatzea sustatzea, gure landa-inguruneari, ekoizpenari, kontsumoari eta jatetxeen sektoreari balioa emateko.

1.2.6 Zirkulazio-ehuneko txikiak dituzten hiri-hondakinen fluxuen berrerabilpena eta baliaraztea bultzatzea (tamaína handiko hondakinak, bizikleta-pneumatikoak).

1.2.7 «Ecoparke Gasteiz» sortzea, ekonomia zirkulararen ikuspegitik hondakinak balorizatzeko azpiegiturak pixkanaka Jundiz poligonoko eremu batean biltzeko.

1.2.8 Eraikuntza-materialen zirkulartasuna handitzen laguntzea, Gasteizko Basque Circular Zentroarekin lan-kidetzan.

1.2.9 Trukerako espazioak erraztea, hala nola berrerabilpen guneak edo etEMPLEO. Horrela, bigarren bizitza bat eman dakieneen materialen eta produktuen zirkulartasuna sustatuko da, eta hondakin gehiago sortzea eta berrerabil daitezkeen produktuak fabrikatzea saihestuko da.

1.2.10 Hibridalab Berrikuntza Laborategiarekin lankidetza-esparru bat ezartzea, Foru Aldundiaren eskuak, hirirako eta gure enpresetarako berrikuntza-proiektuak bultzatzeko, baita enpresa berriak ere.

1.2.11 Sormen-industrien sektorearen alde egitea, berariazko laguntza-ildoekin, kulturaren aldeko apustua eginez eragile ekonomiko gisa eta gainerako euskal erakundeekin lankidetzan.

1.3_ Talentua, enplegua eta ekintzailetza

1.3.1 Enplegu-planak garatzea Lanbiderekin lankidetzen. Horretarako, Eskualdeko Enplegu Plana eta gazteei eta lan-merkatuan sartzeko zaitasunak dituzten beste kolektibo batzuei zuzendutako berariazko beste programa batzuk sustatuko ditugu.

1.3.2 Adineko langabeei arreta ematea, eta iraupen luzeko edota 45 urtetik gorako langabeak kontratatzen dituzten enpresentzako laguntha bereziak sustatzea.

1.3.3 Gasteizek gidatzen dituen 3 empresa-hazitegiak indartzea: Jundizko empresa-zentroa, Erdi Aroko hiriguneko empresa-zentroa eta Basaldeko nekazaritza ekologikoko hazitegia.

1.3.4 Ekintzailetza sustatzeko laguntha-ildoak abiaraztea, beste erakunde batzuetatik beren enpresa edo neoziorako jaso ditzaketen laguntzak diruz lagunduz eta osatzu.

1.3.5 Hiriaren erdigunean ekonomia berdeari lotutako ekintzailetza-gune bat sortzea, non ekintzaileek, enprese berriek eta enpresa finkatuek elkarreragin, partekatu eta proiektu bateratuak garatu ahal izango dituzten.

1.3.6 Gasteiz-Araba talent sortzea, hirian talentua kudeatzeko, erakartzeko eta atxikitzea zerbitzu berria. Hiriko zabalgunean dago eta ekonomiaren eta gizartearen dinamizatzaile lanak egiten ditu.

1.3.7 Lan-eskaintza publiko berriak bultzatzea, premia berrietara egokitutako profilekin, hala nola digitalizazioarekin, eta Administrazioa eta zerbitzu publikoa profesional onenengana erakartzeko.

1.3.8 Udal-enpleguaren egonkortzea finkatzea, %8tik beherako behin-behinekotasun-indizearekin, eta horri denboran eustea.

1.3.9 Udal-administrazioaren, hezkuntza-sektorearen eta enpresa-sektorearen arteko lankidetza indartzea, eskaintzen dugun prestakuntza eta kualifikazioa enpresek eskatzen dutena izan dadin.

1.3.10 Tokiko enpresa-sareari eta enplegu-eskatzaleen ezaugarriei egokitutako prestakuntza-planak sustatzea, arlo horretan lan egiten duten gainerako erakundeekin batera.

1.3.11 Erdi Aroko Hirigunean ikasle-egoitza baten kokapena erraztea, gazteen presentzia aktibatzeko eta kolektiboaren berezko jarduerak bultzatzeko.

1.3.12 Basaldea Proiektuaren alde egitea, nekazaritzako enplegua sortzeko bertako produktu ekologikoan eta kontsumitzailearen zero kilometroan eragina izango duten nekazaritza-ustiategi berriein.

1.4_ Turismoa

1.4.1 Vitoria-Gasteiz NATURACTIVA proiektua garatzea, aire zabaleko kirol-jarduera guztien bidez, gure ingurune naturalaren bidez, kirol-azpiegituren bidez eta bizi-eredu osasunarraren bidez balioa emateko. Ikuspegi honrekin, turismo-sektorearen inguruko jarduera ekonomikoa bultzatzea lortuko da.

1.4.2 Vitoria-Gasteiz marka turismo-helmuga jasangarri gisa sendotzea. Horretarako, turismo aktiboko, kultura-leko eta naturako proiektuak bultzatuko dugu, bai eta Vitoria-Gasteizek 2016tik eskaintzen duen Biosphere Responsable Tourism ziurtagiria aprobetxatu ere.

1.4.3 Idiazabal Gunea sortzea, Gasteizko Eraztun Berdean gaziaren kulturaren gune turistiko gastronomikoa, Idiazabal Jatorri Deituraren Kontseilu Arautzalearekin lankidetzan. Era berean, Puente Alto ingurua azpiegitura turistiko eta gastronomikoa bilakatuko dugu zentzu horretan.

1.4.4 Hirigintza-kudeaketaren bidez, Arabako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritzea Gasteizen sustatzen ari diren ardoaren zentroaren proiektuan.

1.4.5 Gure hiriak aktibo turistiko gisa duen udal eta foru museoen sarea bultzatzea, bisitariei ematen diegun eskaintza kultural eta turistikoan txertatzu.

1.4.6 Gure mural-eskaintzan lurrealdeko tokiko produktuak eta gure gastronomia sartzen dituzten mural berriak gehitzea, lurrealdearen erakusleihoz ere izan daitezen.

1.4.7 Erdi Aroko hirigunean aisialdirako eta turismorako gune berri bat sortzea, Erdi Aroko harresian Arabako laudako begiratokia egiteko proiektuaren bidez.

1.4.8 Europa eta Villasuso jauregien kudeaketan esperientzia egiaztatu duten profesionalekin lankidetzan aritzea, gertaera, ekitaldi eta kongresuen egoitza gisa duten potentzial guztia lor dezaten.

1.4.9 Turismo Bulego berria lekuz aldatzea Goya gasolindegia berritan, bisitariei kalitatezko arreta emateko.

1.5_ Merkataritza

1.5.1 Merkataritzan belaunaldien arteko ordezko-estrategia ezartzea, erretiroengatik negozioak ez ixeko eta ekintzaile gazteei aukerak emateko.

1.5.2 Merkataritza-zuzendaritza baten sorrera sustatzea, merkataritza-inguruneen beharren ikuspegijorokorra izango duen eta udal-kudeaketarekin lotura izango duen figura berri gisa.

1.5.3 Digitalizazioa bultzatzea merkataritzaren sektorean, bai salmenta-puntuen sektorean, bai datu-proiektuen bidez, sektoreari hiriaren merkatua eta beharrak hobeto ezagutzeko aukera emango diotenak.

1.5.4 Merkataritzaren behatokia indartzea. Horretarako, datu zabalagoak erabili eta sektorearen ezagutza handiagoa eskaintzen duten datuen analitikako proiektuak sustatuko ditugu.

1.5.5 Merkataritza-guneetako hiri-inguruneak berritzea, merkataritza-eremueta hiri-inguruneak berritzeko eta hobetzeko lan egitea, horiek altzari hobekin eta mantentze-lan orokorrekin hornituz.

1.5.6 Merkataritza-guneetako argiztapa-hobetzeko programa bat ezartzea, LED bidez. Andre Maria Zuriaren plazan egin den bezala, argiztapen apaingarriko proiektuekin jarraitzea eta merkataritza-guneetako argitasuna hobetzea.



1.5.7 Udalak merkataritza-sektoreko erakunde nagusiekin duen lankidetza indartzea, merkataritza- eta ostalaritza-sektorea indartzeko programak eta jarduerak egiteko.

1.5.8 Gasteizen lehen mailako kirol- edo kultura-ekitaldiak erakartzea eta sustatzea, hiriari bizia emateaz gain, gure merkataritzan eta ostalaritzan kontsumitzen duten kanpoko bisitariak ekartzeko.

1.5.9 Hirian banaketa-ibilgailuak antolatzeko araudia ezartzea. Salgaiak modu ordenatuan banatzea ahalbi-

detuko duen antolamendu egokia, eta banaketa-furgoneta txikien saturazioa saihestea.

1.5.10 Gure saltokietako produktuen etxez etxeko banaketa sustatzea, azken miliako sistemaren eta bizikletaz entregatzeko zentro logistikoaren bidez.

1.5.11 Udal-aparkalekuetan eta doako 15 minutuko aparkaleku espreestan deskontuak sustatzea tokiko merkataritzako bezeroentzat, salmenta eta merkataritzarako sarbidea ibilgailu pribatuari errazteko.



1.5.12 Hutsik dauden lonjak berriro irekitzea. Hori lortzeko, jarduera komertziala eta kulturatezko espazio publikoa bultzatuko duten negozio berriak irekitzea erraztuko dugu fiskalitatearen aldetik, eta ekintzaileentzako alokairurako lagunten bidez eta udalaren jaetzako lokalak arrazoizko prezioetan merkatauan jarriko ditugu.

1.5.13 Saltokien ezarpena sustatzea, erreklamatzen eta zerbitzu berezia eskaintzen balio duten saltoki bereziak erakartzeko ekimenen bidez, gainerakoentzat bezeroak erakartzeko.

1.5.14 Zamalanetarako guneen denbora eta erabilera adostea langile autonomoen elkarrekin, merkatariantzako eta ostalarientzako zerbitzuak hobetzeko.

1.5.15 Ekintzaileei laguntzea. Alokairurako laguntzak ematea, bai eta pizgarri fiskal batzuk ere, hala nola OHZ, zaborren tasa edo EJZ lehen bi urteetan ekintzaileentzat.

1.5.16 Hiriko auzoetan merkataritza-ardatzen estrategia bultzatzea, auzoko merkataritza indartzeko, hiriko zenbait eremutan dauden esperimentziak bezala.

1.5.17 Gazteentzako balioetan hezteko programak abian jartzea, hurbileko eta tokiko merkataritzan kontsumoa sustatzeko.





Funtzionatzen duen hiria Zorroztasuna

- 2.1 Auzo eta herrien hiria
- 2.2 Hiri konektatua
- 2.3 Pertsonen hiria
- 2.4 Administrazio zorrotza, modernoa eta hurbila

"Gasteizko etorkizunak, halaber, hiriak behar bezala funtzionatuko duela bermatu behar da. Auzo berriak, ondo zaindutako kale eta lorategiak, garbia. Mugikortasun jasangarri eta seguruarekin, garraio publiko elektrikoarekin, bidegorri gehiagorekin eta autoa erabili behar dutenei beste aukerak emanez"

2_Funtzionatzen duen hiria _ Zorroztasuna

Hiriko helburuak:

- Hiri trinkoago eta kohesio maila handiagoko baten alde egitea, bizi-kalitatea irabazteko eta udal-baliabideen erabilera eraginkorragoa egiteko.
- Mugikortasun jasangarria eta segurua bultzatzea, garraio publikoa eta elektrifikatua hobetuz eta garraiobideen arteko bizikidetza hobetuz.
- Vitoria-Gasteiz pertsonak babesteko zerbitzuen kalitate-erreferente gisa finkatzea.

Projektu estrategikoa:

1. Barrurantz haztea. 25000 etxebizitza.
2. Aruntasuna, zorroztasuna eta gertutasuna kudeaketan. Plantilla modernizatzea, finantza-zorroztasuna, burokrazia murriztea eta izapideak arintza.
3. Auzoetako plana, 125 milioi. Auzoak berroneratzea eta mantentze-lanak hobetza.
4. 2024-2029 mugikortasun plana. Tramvia Zabalganara zabaltzea, TUVISA berritu eta elektrifikatzea, bizi-kleta-sarea hobetza, eta oinezkoen segurtasuna eta trafikoaren aruntasuna bermatzea.

Bere auzoetatik hiria egin nahi dugu. Auzo guzietara eraman nahi ditugu bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetuko duten proiektuak, eta, horretarako, auzo-elkarteen parte-hartzea izan nahi dugu. Gure auzo bakoitzak nortasuna du, esentzia, gainerakoengandik desberdina egiten duten ezaugarri batzuk. Eta bakoitzak behar due-nari erantzun behar diogu. Auzo zaharrenetatik, garapen industrialarekin jaio zirenetatik, gazteenetara. Guztiak lagundu dute gure hiriak aurrera egiten, eta arreta berezia merezi dute. Auzo hobeak edukitzeak hiri hobia izatea dakarrelako. Auzo berrituak eta ondo zainduak, kohesio maila handikoak, azpiegitura eta zerbitzu onekin. Lan egin behar da, lehentasunak eta larrialdiak ezarri behar dira, baina baita etorkizuna diseinatu ere.

Gure auzoek aurrera egiten badute, bertako bizilagunek ere bai. Gazteentzat eta emantzipatu ahal izateko gobernaturako dugu; berdintasunez, beldurrik gabe, eta indarkeriarik gabe bizi nahi dugun emakumeontzat; adinekoentzat ere bai, haien ekipamendu onak izan ditzaten lan egingo dugu, osasuntsu eta lasai bizi daitezen; halaber, aurrez aurreko arreta bermatuko dugu, duintasuna errespetatuko duen udal-administrazio batekin; migratzailentzat ere gobernaturako dugu, beren ahaleginarekin eta lanarekin hiri honek aurrera egin dezan laguntzen dute-nentzat. Gehien behar duenarekin egongo gara, inor ez da atzean geratu behar. Elkartasunaren, errespetuaren, bizikidetzaren eta berdintasunaren balioak sustatuko ditugu. Gasteiz inklusiboa eta kohesio maila handikoa nahi dugu.

Gure inguruko hiri eta herrialde askotan erreferente gara. Gizarte-politika aurreratuengatik eta ingurumena errespetatzen duten mugikortasun-politika jasangarriengatik gara erreferente. Gure ustez, mugikortasuna elementu estrategikoa da karbono-hiri neutroa izateko helburuan aurrera egiteko. Asmo handiko helburua da, eta horretarako prest gaude. Garraio publiko moderno eta eraginkor baten aldeko apustua egiten dugu eta oinez edo bizi-kletaz joan-etorriak erraztearen aldekoa, ibilgailu pribatua erabiltzen duten pertsonak ahaztu gabe. Garraiobide desberdinak kaleetako bizikidetzak gidatuko du gure lana. Pertsonen segurtasuna zaindu behar dugu eta, horregatik, bizikletak eta patineteak espaloietatik aterako ditugu. Abangoardian gaude mugikortasun jasangarri eta osasungarri baten estrategian, eta horretan jarraituko dugu. Hau da gure eredu.

Auzoak, pertsonak, jasangarritasuna. Udal-finantzten kudeaketa eraginkorra eta zorrotza badugu, lor daitezkeen lehentasunak eta proposamenak dira horiek. Administrazioa modernizatzeko, herritarrekiko harremanak hobetzeko, hurbiltasunerako eta entzute aktiborako urratsak ematen jarraitu behar dugu. Badakigu zorroztasunetik, seriotasunetik eta gardentasunetik kudeatzen.

2.1_ Auzo eta herrien hiria

AUZOAK

2.1.1_ Auzoko zinegotziaren figura ezartzea. Auzoen beharrizanak eta ikuspegi estrategikoa zainduko dituen figura bat, bai eta hirian duten kokapena ere. Bere errealitate soziodemografikoa kontuan hartuta, auzo bakoitzaren beharrizanen plangintza integrala eta bakoitzak hiri osoan duen lekua izatea ahalbidetuko digun zinegotzia.

The infographic is a green-themed document titled "Auzoen hiria" (Our Neighborhood) in large, bold letters at the bottom center. It features several sections representing different neighborhoods:

- Zaramaga:** Includes icons for pedestrian safety and youth housing.
- Abetxuko:** Includes icons for street improvement and tree pruning.
- Coronación:** Includes icons for urban regeneration and cultural events.
- Izaskun Arrue Kulturgunea:** Includes icons for patrimony care and neighborhood centers.
- Arriaga:** Includes icons for elderly care, street maintenance, lighting, and public parks.
- Judimendi:** Includes icons for municipal attention and traffic fluidity.
- Aranbizkarrar Arantzabelar:** Includes icons for elderly spaces and youth spaces.
- Lakua:** Includes icons for street lighting and public parks.
- Sonsomendi Ali:** Includes icons for elderly care and parking spaces.
- Ariznabarra:** Includes icons for illuminated paths and parking spaces.
- Ibaiondo:** Includes icons for elderly care and street lighting.
- Mendizorrotza:** Includes icons for elderly care and parking spaces.
- San Martín:** Includes icons for elderly care and parking spaces.
- Zabalgana:** Includes icons for bus frequency and green zone cleaning.
- Salburua:** Includes icons for school areas and park areas.
- Goikalarra:** Includes icons for elderly care and park areas.

At the top, there are two main sections:

- Seguridad peatonal:** A section for pedestrian safety.
- Renovación de calles:** A section for street renovation.

Each neighborhood section contains a brief description of its goals and specific projects. The overall theme is the transformation and enhancement of Gasteiz's neighborhoods through various urban improvements.

2.1.2_ Gasteizko auzoetan 125 milioi euroko inbertsioak egitea 2023 eta 2027 urteen artean. Birgaitzeko, eraberritzeko eta mantentzeko inbertsioak, auzoen birgaitzea bultzatuz, Zaramagan egiten ari garen bezala, hiriko auzo gehiagotara iristeko eta alde zaharra eta zabalgunea birgaitzeko planez gain.

2.1.3 Auzoetako hiri-altzariak berritzeko eta mantentzeko plan berezi bat bultzatzea, bereziki bankuetakoak, paperontzietakoak eta haurrentzako eremuetakoak, 40 milioi euroko hornidurarekin. (8 milioi argiztapene-rako, 4 milioi asfaltatzeko, 4 milioi espaloia konpontzeko, 2 milioi bidegorriak mantentzeko, 4 milioi esko-la-inguruneko hobekuntzetarako, 15 milioi espazio publikoa berreskuratzeko, 3 milioi haur-parkeak berritzeko).

2.1.4 Espazio publikoan obra esanguratsuak sustatzea, hala nola Herrandarren eta Legutianoko Atariaren eraberritzea, besteak beste, espazio publikoa irabazteko, mugikortasun aktiboa hobetzeko eta, bide batez, garraio publikoa eta ibilgailu pribatua barrantolatzeko.

2.1.5 Azpiegitura berdeak irabaztea, aisialdirako gune gehiagorekin. Horrek ekonomia aktibatuko du, kulturara bideratutako eremuak handituko ditu, eta urarekin dugun harremana hobetuko du, gure bizitzarako ezinbesteko elementu gisa eta joko eta kultura harreman sozialerako gune gisa.

2.1.6 Inausketak eremu gehiagotara zabaltzea, betiere zuhaitzen bizi-zikloak errespetatuz, zuhaiztia espezie iraunkorragoetara aldatzea eta txorkoak hobetzea.

2.1.7 Hiri osoan hostoak biltzeko eta txorkoak mantentzeko zerbitzua indartzea, batez ere udazken garaian eta inausketa denboraldietan, plan berezien bidez. Plan horien bitarbez, langileak eta baliabideak bikoitzuko dira. Horretarako, urtean 250000€ gehiago erabiliko dira inausketak eta txorkoak egiteko, eta 100000€ gehiago hostoak biltzeko.

2.1.8 Hiriko Zabalgunea berritza, Gasteizko Zabalguneko etxadiak eta patioak berroneratzeko plana garatuz, 21 Zabalguneko bizitegi-eraikinen birgaitze energetikoa eta irisgarritasuna hobetzeko.

2.1.9 Erdi Aroko Hirigunea berdatzeko Plana bultzatza. Plan horrek 55 ekintza zehatz ditu auzoko bizi-kalitatea hobetzeko, eta hodiak, ur-biltegia, Santa Maria plaza, hiriko jatorrizko hiru kaleak eta kantoi eta fatxada ospetsuak hobekituko ditu.

2.1.10 Erdi Aroko Hirigunearen Birgaitze Integralerako Plan Berezia onartza, auzoaren biziberritze integrale-rako tresna gisa. Hirigunea birgitzeko, ondarea berreskuratzeko eta hiri-espazioa hobetzeko plana da hori.

2.1.11 Osakidetzarekin hitzarmena garatza, Erdi Aroko Hiriguneko Osasun Zentro berria ezartzeko Hospizio Zaharraren eraikinean, auzoko bizilagunei zerbitzu hobea eskaintzeko.

2.1.12 Ostalaritzari eta gaueko aisialdiari laguntzak ematea, isolamendu akustikorako buruzko beharrezko azterlanak egin ditzaten, lokalen intsonorizazioa hobetzeko egin behar dituzten aldaketak egin ahal izateko.

2.1.13 Etxebizitzen isolamendu akustikorako laguntzak indartza, zarataren eraginpean egotea onartezina delako aurrez identifikatutako eremuetan.

2.1.14 Argiztapen publikoaren %80ra iristea LED bidez. Horrela, kale eta plazetako argiztapena hobetuko dugu, hautemandako segurtasuna eta ikusmen-erosotasuna emango ditugu eta, gainera, kontsumo elektrikoan %60 baino gehiago aurreztuko dugu.

2.1.15 Birziklatze selektiboaren tasa egungo %37tik %50era pasa dadin sustatzea, Europako araudiak eskatzen digun bezala. Horretarako, gaikako bilketa-sistema bultzatuko dugu, hondakin guztiak birziklatzeko aukera emango diguten edukiontzi-uharte gehiagoren bidez.

2.1.16 TMB prozesuan hobekuntzak egitea, gure birziklatze-tasak hobetzen jarraitu ahal izateko, Europako punta-puntako herrialdeetako mailetara iritsi arte.

2.1.17 Materia organikoko edukiontziak instalatzen jarraitzea, edukiontzi-uharteak zabaltzea eta erregulartasunez birziklatzen duten pertsonei eta familiei hobariak ematea, haien zaborren tasa murriztuta.

2.1.18 Auzoak garbitzeko programa bereziak abian jartzea. Hiriko auzo guztieta gutxienez urtean behin egi-ten diren garbiketa integralekin.

2.1.19 Gizalegaren kontrako jarreren ikuskapena eta zehapena indartzea, bai eta garbiketa-ordenantzan ezarritako baldintzak bete gabe, tamaina handiko objektuak bide publikoan uztearen aurkakoak ere .

2.1.20 Hondakin handien bilketa aztertzea, etxez etxe, batez ere adinekoentzat eta mugikortasun urriko egoeretan dauden pertsonentzat.

2.1.21 Hondakinen Partzuergoa bultzatzea, Arabako Foru Aldundiarekin eta kuadrillekin lankidetzan, bai eta lurraldeko hondakinen kudeaketa integralean irizpideak eta sinergiak bateratzea ere.

HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

2.1.22 Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria behin betiko onartzea, ezarritako epeetan aurkezten diren ale-gazioak ebatzi ondoren eta behin betiko onartzeko ezarritako araudiari jarraituta.

2.1.23 Alokairuko babes ofizialeko 2000 etxebizitza berri eraikitzen laguntzea. Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, lurzorua doan eskuragarri jarrita eta Gasteizko bizilagunei lehentasuna emanda.

2.1.24 Hiri-eredu trinkoagoa eta kohesio maila handiagokoa garatzea. Horren ondorioz, eremu sakabanatuenak birdentsifikatu eta barrurantz haziko dira eta auzoei bizitza gehiago emango diegu. Horrez gain, baliabi-deen kudeaketa arrazionalagoa eta hiri-espazioaren kalitate handiagoa ahalbidetuko duen hirigintza-eredua ahalbidetuko dugu, eremu jendetsuago eta biziagoekin.

2.1.25 21 Zabalgunearen bidez, etxebizitzak birgaitzeko eta haien balioa nabarmentzeko programak abiaraztea, auzoak biziberritzeko.

2.1.26 21 Zabalgunea sozietate publikoa gaitza lankidetzako etxebizitza-ekimenak bultzatzeko (cohousing, etab.). Baita udal-etxebizitzak birgaitzeko neurriak garatzea ere.

2.1.27 Gazteentzako etxebizitza-ereduak garatzeko proiektuak bultzatzea. Kolektibo horri aldi baterako ostatu eskuragarria izateko aukera ematea.

VITORIA-GASTEIZKO 63 HERRIAK

2.1.28 Udalerriko herrien garapenarekin jarraitza, toki entitateen azpiegitura eta zerbitzuei buruz egindako azterketan oinarrituta, landa eta hiri eremuen arteko harremana eta sinergia sustatzeko, herri biziak sendotzeko helburuarekin.

2.1.29 Landa-eremuko emakumeen sareari bultzada ematea. Horretarako, herriean zaintzarekin lotutako enpresa txikien antolaketa sustatuko duen lan- eta harreman-sare bat sortuko dugu.

2.1.30 Uholdeei irtenbidea emateko jarduketak gauzatzea; URArekin lankidetza. Acuaesekin, bestalde, , Zadorra bideratzeko 3. eta 4. faseak burutzea.

2.1.31 Kontzejuei administrazio- eta hirigintza-kontratazioaren arloko lagunza teknikoa ematea, GKE, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetza-hitzarmenen bidez.

2.1.32 Landa-mugikortasuneko plana abian jartzea, Gasteizko herrientzako mugikortasun jasangarrirako konponbideak bilatzeko, eta, aldi berean, nekazaritza-trafikoa eta haren ibilbideen optimizazioa aztertzea.

2.1.33 Landa-biodibertsitatearen estrategia bat garatzea. Hori lortzeko, landa-ingurunean biodibertsitatea handitzeko jarduerak aktibatu eta nekazaritza eta basogintza kudeatzeko teknika jasangarriak aplikatuko ditugu.

2.2_ Hiri konektatua

MUGIKORTASUNA OINEZ ETA BIZIKLETAZ

2.2.1 Mugikortasunari buruzko ordenantza berri bat onartzea, Gasteizen mugikortasun-aukeren arteko biziki-detza antolatzeko eta espaloieta oinezkoak babesteko.

2.2.2 Eskola-inguruneetan esku hartzen jarraitza, haurren segurtasuna hobetzeko, eta mugikortasun jasan-garria bultzatzearen, eskola-bide seguruak garatzearen, oinezko txirrindularien arteko bizikidetzaren, garraio publikoaren eta ibilgailu pribatuaren aldeko apustua egitea, betiere ikastetxeetako zuzendaritzarekin, guraso-elkarrekin eta auzo bakoitzeko eragile aktiboekin lankidetza.

2.2.3 Ikasleei bizikletan seguru ibiltzeko ikastaroak ematea eta oinez, bizikletaz edo patinetez ikastetxera doazen haurrentzako ibilbide seguruen berri ematea.

2.2.4 Bidegorrien sare zabala handitza, ia 200 km-ko bidegorriak lotza eta horien mantentze egokia eginga; Jundiz poligonoko eta Koroatza eta Frantzia kaleetako bidegorriak diseinatzea.

2.2.5 Bizikleten alde eta bizikleten aparkaleku seguruen VG-Biziz sarearen alde egitea, jatorrian eta helmugan espazio seguruak bermatzeko, baldintza klimatologikoetatik kanpo.

2.2.6 Hiriaren eta bere industrialdeen arteko lotura errealtitate bihurtza bidegorrien sareari esker, industrial-deetara bizikleta-bideen proiektuaren bidez.

2.2.7 Zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboa bizikletak hornitza. Prest jarri ondoren, zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboei esleituko zaizkie Agirrelandan biltegiratutako bizikletak, baldin eta haien jabe legitimoak, zentzuzko denbora igaro ondoren, ez baditu eskatzen.

TRAFIKOA ETA APARKALEKUAK.

2.2.8 Mugikortasun-agenteen zerbitzu berri bat sortza, beste hiri batuetan bezala, tamaina antzekoa. Ha-sieran, 50 agente berri jarri dira, trafikoa eta bide-segurtasuna eta oinezkoak arautzeko, bai eta bizikletak eta patinetek espaloieta kontrolatzeko edo puntako orduetan trafikoaren beharrei erantzuteko ere.

2.2.9 Ibilgailu elektrikoarentzako 200 karga-puntu ere bide publikoan jar daitezen bultzatza, Gasteiz hiri liderra izango den karga-puntuen instalazioan.

2.2.10 Semaforo-sisteman hobekuntzak sartza, oinezkoen segurtasuna hobetzeko, eta Gasteizko ibilgailuen zirkulazioaren aruntasuna areagotzeko neurriak hartzea.

2.2.11 BEI sisteman hobekuntzak sartzea, garraio publiko kolektiboan (autobusetan) BElaren errei esklusiboa erabili ahal izateko, semaforoak erregulatzeko beharrezko baliabideak emanda.

2.2.12 Behar diren puntuetan oinezkoentzako segurtasun-hobekuntzak ezartzea, istripu-arriskua minimizatza ahalbidetzen duten argi- edo kontrol-elementuez hornituta, eta gainerako ibilgailuekin bizikidetza egokia bermatzea.

2.2.13 Beste garraiobide publiko batzuen bidez goratutako errei-tarteen erabilera sustatzea, eta zenbait puntuatan errei bereizi bakarrera murriztea, gainerako ibilgailuentzat leku gehiago irabazteko.

2.2.14 Oinezkoen eta bideen segurtasunaren ikuspegitik hobetu daitezkeen hiriko bidegurutzeak eta puntuak aztertzen jarraitzea, eta horretarako behar diren neurri teknikoak hartzea.

2.2.15 Disuasio-aparkalekuaren sare bat garatzea. Helburua da aldirietako ibilgailu pribatuei aparkaleku-plaza bat eskaintzea, hiriaren erdigonera garraio publikoaren bidez sartzeko (BEI, tranbia edo TUVISA lineak).

2.2.16 Lakuako autokarabanen eremua egokitzea, ordainketa bidezko sarbide-sistemen bidez, eta hori zerbitzu hobeekin hornitzea.

2.2.17 Ahalik eta informazio gehienarekin eta auzotarrekin eta inplikatutako eragileekin adostuta, Emisio Gutxiko Eremuak ezartzea, legeriak horiek ezartzera behartzen baititu.

KANPOKO KONEKTIBITATEA

